

Askatzaileak al dira emakumearentzat?


Pilula asmatu zenean, hainbat emakume taldek emakumea behingoz ugalketaz erabakitzekeo posizioan zegoela uste zuten. Bestelako ahotsak ere badira ordea, ez ote diogu gure gorputza ezagutzeari utzi eta industria farmazeutikoaren esku laga gure gorputzaren kudeaketa?

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

MERITXELL GUÀRDIA I SERENTILLEK idatzi du artikulu luze eta mamitsua Pikara Magazine webgunean. Espainiako Estatuko osasun sistemak antisorgailu hormonalak lehenesten ditu “harreman egonkorretan”, metodo naturalak eta norberak kudeatu beharreko metodoak alde batera utzita.

Medikuntzak dioenez, bestelako metodoak ez dira eraginkorrak. Aldiz, Osasunaren Mundu Erakundeak %95eko eraginkortasuna dutela dio. Antisorgailu hormonalak ez diren bestelako metodoak erabiltzeko emakumeak bere gorputza oso ondo ezagutu behar du, baita hilekoaren zikloa ere, eta antisorgailu hormonalen erabileraren kontrako- en ustez, medikuntzako erakundeek interes gutxi dute halako metodoak bultzatzeko. Izan ere, diafragma edo planifikazio naturalak erabiltzeko emakumei (eta baldin badute bikotekideei) irakatsi egin behar zaie eta horrek denbora eskatzen du. Ana Moreno emaginak dioten moduan, “emakumei autogestiorako boterea eman eta haien gaitasunetan sinetsi”.

Enriqueta Barranco ginekologoa urrutirago doa, eta hala dio: “Ez dezagun ahaztu, askotan, zientzia patriarkalak jaiotza kontrolaren bidez emakume ugalkorrak kontrolatzen ditu, erdi ezkutuan bada ere. Industriak ugalkortasuna autogestioatzeko dauden metodo eraginkorrak gutxiesten ditu, eta horrela, haien proposamen bortitzei uko



WWW.TODANOTICIA.COM

Bayer enpresak 8.900 demanda jaso zituen antisorgailuen ondorioengatik.

egin dien emakumeen autokonfiantza ahultzen dute”.

Artikulu luzearen egileak gai beraren beste adar batzuk ere aletu ditu. Gizonak, nahita edo nahigabe, familia-plangintza ugaritatik kanpo utzi dituztela dio Guàrdiak. Gaur egun bi antisorgailu metodo baino ez daude: preserbatiboa eta basektomia. Oso proba eta ikerketa kliniko gutxi egin dira gizonentzako antisorgailu kimikoa aurkitzeko, teknologia medikoak beti emakumearen ugalkortasuna landu du. Harago doa Beatriz Preciado. Filosofoaren ustez, hormona maskulinoak gizona gizontzeko eta sexualizatzeko erabiltzen dira eta hormonona femeninoen helburua berriz, emakumeen sexualitatea eta ugaltzeko gaitasuna kontrolatzea da.

Egileak antisorgailu hormonalen bigarren mailako efektuak landu ditu

artikuluaren. Bayer industria farmazeutikoak azkeneko txosten finantzarioan (2014ko ekainekoa) adierazi du 1,8 mila milioi dolar behar izan dituela 8.900 demandari erantzuteko, izan ere, Amerikako Estatu Batuetako milaka emakumek Yaz, Yasmin, Ocella eta Gianvi markako antisorgailuek bigarren mailako efektuak eragin dizkietela salatu dute. Artikuluaren egileak antisorgailu hormonalen ondorio positiboak zerrendatzen ditu lehenengo eta ondoren epe motzean agertzen diren ondorio txarrak, eta epe luze-koak. Kontuan izan behar da antisorgailu hormonalak ez dituztela ugalkortasuna kontrolatu nahi duten emakumeek soilik erabiltzen, aknearen, hirsutismoaren (ilea haztea) eta burusoiltasunaren kontra ere hartzen dituzte. ■

